

# Emakumeak jipoitzen dituzten gizonak desterratzeko eskatu du Legebiltzarrak

Emakume taldeen aldarrikapenak jaso dituen zuzenketa onartu du, aho batez

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Gasteizko Legebiltzarreko talde parlamentario guztiek emakumeen aurkako tratu txarrak salatu zituzten atzo. Alderdi guztiak bat datoz erasotzailea emakumeengandik urrundu behar dela esaterakoan. Legebiltzarrak tokian tokiko erakundeei gomendatu die berehalako sorospena emango duten larrialdietarako gizarte zentroak sortzeko.

EZOHIKO kasua izan da, Ganberako adierazpenak aparte utzita, osoko bilkurak tratu txarren gaiari heldu dion eta talde guztiak ados jarri diren estreinako aldia delako. Bestalde, zuzenketa garrantzitsua da, emakume taldeen aldarriak jaso dituelako. Gainera, talde parlamentarioek euren konpromisoa agertu dute onetsitakoa gauzatu ahal izateko.

Hitzartutako zuzenketa 11 puntu ditu, eta eskaerak hainbat erakundetara igorri ditu. Hala, aurrenekoak administrazio guztiei dei egiten die «berdintasuna bultzatzen jarraitzeko», eta zehatz-mehatz, Jaurlaritzari eskatzen dio, «Emakunderekin eta emakume taldeekin elkarlanean», sentikortasun kanpainak bultzatzeko.

Era berean, tratu txarrei buruzko egoera jakinei erreparatuta, «erasotzailearen



Jone Goirizelaia (EH), Legebiltzarreko aretoan, atzo.

urruntze edo desterru legala komeni» dela dio. «Horrek, babes polizialarekin batera, emakumearen segurtasunerako bermea» dakarrela uste du.

## Sorospen zerbitzuen espezializazioa

Legebiltzarrak diputazioei eta udalei gomendatu die emakumeentzako larrialdietarako gizarte zerbitzuak abian jartzeko, «zeinak egun

eta ordu orotan ariko liratekeen, arlo guztiak koordinaturik».

Halaber, Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari eskatu dio orain diharduten «zerbitzuen espezializazioa» egin dadin.

Gainontzeko eskaeretako batzuek Jaurlaritzara jo dute, hezkuntza sistemak hezikidetzari eusteko eta tratu txarrak pairatu dituenaren seme-alabentzako laguntza programak sor daitezzen. Bes-

etik, lanean ari diren «emakume taldeak onartzeko eta euren aurrekontua mantentzeko» eskatu du.

Lakuako Barne Sailari eskatu dio tratu txarrei buruzko ekinbide protokoloa egiteko, eta, gainera, atentzio espezializatua eman dezan salaketak jasotzeko eta.

Azkenik, Legebiltzarreko dagokion batzordeak gaiaren inguruan gizarte ohartarazi beharra daukala aldarrikatu dute taldeek.

## Bi lagun hil ziren atzo bi auto istripuan

■ Zangozan izan zen ezbehar bat, eta Plentzian bestea

Agentziak / Iruñea

ANGELA TESERA Abadia 52 urteko zangozarra hil zen atzo, Zangozan bertan izan zen auto istripuan buruan jaso zuen kolpearen ondorioz, suhiltzaileek jakinarazi zuten. Istripua atzo goizeko 10:45etan gertatu zen, N-127 errepidean. Emakumeak Yamaguchi hotelera joateko maniobra egin zuen, baina, bidegurutzean dagoen stopean zela, lur orotako auto batek jo egin zuen. Emakumea unean bertan hil zen, buruan jaso zuen kolpearen ondorioz. Beste autoa gidatzen zuen gizonari ez zitzaion ezer gertatu.

## Plentzian beste hildako bat

Arratsaldean, berriz, 18:45etan, BI-3704 errepidean gertatu zen auto istripua, Plentziako paretan, eta pertsona bat hil zen ondorioz.

Atzo ilunabarrean ertzainek aditzera eman zuten oraindik argitzeko zegoen zer-dela eta jazo zen ezbeharra, baina bi ibilgailuk elkarren kontra talka egin zuten. Kolpea handia izan zuen, eta bizia galdu zuen pertsona gain ondorio larriak izan zituen beste bi laguntzat ere, zauritu egin baitziren.